



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

GIDA BAT **8** URRATSETAN

1



ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK DATUAK BABESTEKO

Erregelamendu
orokorrera egokitzeko



Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean Erregelamendu Orokorra) 2016ko maiatzean sartu zen indarrean, baina 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez ezarri beharrekoa izango da; eta, beraz, egun horretarako tratamenduen arduradun eta eragile guztiek Erregelamenduko aurreikuspenetara egokituta egon beharko dute.

Administrazio publikoei datuak babesteko **tratatamenduen arduradun edo eragile** izatea egokitzen zaie, haien jarduerak aurrera eramaten dituztenean. Horrek esan nahi du, Erregelamendu Orokorrak eragina izango duela administrazio publikoetan, eta bertan ezarritako printzipio eta betebeharrak orokorrean gain, administrazio publikoetarako berariaz ezarritakoak ere bete beharko dituztela.

Hona hemen laburtuta, nola egokitu daitezkeen administrazio publikoak Erregelamendu Orokorreara **zortzi urratsetan**.

8 URRATS

- 1 ▶ Datuak babesteko ordezkaria (DBO) izendatzea
- 2 ▶ Tratamenduen barne erregistroa ezartzea
- 3 ▶ Tratamenduen legitimazioa berrikustea
- 4 ▶ Interesdunei ematen zaien informazioa berrikustea
- 5 ▶ Eskubideak egikaritzeko prozedurak berrikustea
- 6 ▶ Tratamendu-eragileekin dauzkaten kontratuak berrikustea
- 7 ▶ Arriskuen azterketa egitea eta segurtasun neurriak berrikustea
- 8 ▶ Eraginaren ebaluaziorik egin behar den zehaztea



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Tomas Zumarraga Dohatsua
71, 3. solairua.
01008 Vitoria-Gasteiz

Tel: 945 016 230
e-posta: avpd@avpd.eus
web: <http://www.avpd.eus>

Jendaurreko
ordutegia:

Urria-maiatz:
9:00-13:00 ; 15:00-16:00
Ostiralak: 9:00-14:00

Udako ordutegia:
Ekaina-iraila:
9:00-14:00

Argitaratzailea: © Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Inprimatze lanak: Gráficas Dosbi, S.L. – L.G.: VI 140-2018

1

DBO izendatzea

Datuak babesteko ordezkaria (DBO) Erregelamendu Orokorrean jasota dagoen figura bat da. DBLOK ez zuen halakorik jaso, baina, Europar Batasuneko zenbait herrialdetan badaukate lehendik.

Hona DBOren **eginkizun** nagusiak:

- a) Tratamenduaren arduradunari edo tratamendu-eragileari informazioa eta aholkularitza ematea.
- b) Gainbegiratzea ea tratamenduaren arduradunak eta eragileak Erregelamendu Orokorra betetzen duten, honakoak barne:
 - erantzukizunaren esleipena,
 - kontzientziazioa eta langileen prestakuntza,
 - eta kasuan kasuko auditoriak.
- c) Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioaren (DBEE) inguruan aholkularitza ematea eta beraren aplikazioa gainbegiratzea.
- d) Kontrol-agintaritzarekin lankidetzan eta horiekiko harremanetarako gune moduan jardutea.

▶ Era berean, aurreikusten du agintaritza edo organismo publikoek aukera dutela elkarren artean datuak babesteko ordezkari bakarra izendatzeko, tamaina eta antolaketaren egitura kontuan hartuta.

Datuak babesteko agintaritzari jakinarazi egin behar zaie datuak babesteko ordezkariaren izendapena.

▶ Era berean, erraztu egin behar da interesdunak datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko modua.

Datuak babesteko ordezkariaren figura arautzea izan daiteke administrazio publikoak Erregelamendu Orokorrean egokitzearen lehenengo neurria.

▶ Horretarako:

▶ identifikatu behar da organo edo organismo bakoitzeko zein unitatetan kokatu beharko den ordezkaria,

▶ zein toki duen administrazio egituran eta zein mekanismo erabiliko diren ziurtatzeko izendatzen den ordezkariak betetzen dituela Erregelamendu Orokorrean xedatutako kualifikazio eta gaitasun arloko betekizunak;

▶ eta ziurtatu behar da independientea dela eta interes gatazkarik ez dela egongo.

Erregelamendu Orokorrean aurreikusten du «agintaritza edo erakunde publiko» **guztiei** izendatu beharko dutela **datuak babesteko ordezkari** bat.

▶ Horrez gain, ezartzen ditu ordezkaria izendatzeko bete beharreko irizpideak (ezaugarri profesionalak eta ezagutzak zuzenbidean eta praktika datu-babesaren alorrean), organizazioan duen kokapena eta eginkizunak.

2

Tratamenduen barne erregistroa ezartzea

Erregelamendu Orokorrak bertan behera utziko du orain arte indarrean egon den obligazioa fitxategiak eta tratamenduak xedapen orokor baten bidez sortzeko, aldizkari ofizialean **argitaratzeko**, eta, azkenik, datuak babesteko agintaritzari **jakinarazteko**, agintaritzak Fitxategien Erregistroan inskribatu dezan.

Erregelamendu Orokorrak, ordea, xedatzen du nahitaezkoa izango dela **tratamendu-jardueren barne erregistro bat kudeatzea**, eta funtsezko tresna izango dela Erregelamendua betetzen dela frogatzeko eta tratamenduak gainbegiratu ahal izateko.

► Tratamenduaren arduradunek eta eragileek kudeatu behar dute erregistroa.

► Erregelamendu Orokorrak ezartzen du erregistroaren gutxieneko edukia.

Eguneratuta eduki beharko da eta datuak babesteko agintaritzen eskura.

► Administrazio publikoek tratamendu-jardueren inbentarioa argitaratu beharko dute, eta bitarteko elektronikoen bidez eskuragarri jarri, gardentasun neurritzat.

3

Tratamenduen legitimazioa berrikustea

Administrazio publikoek zehatz finkatu beharko dituzte **zein helburu eta lege-oinarri duten egingo dituzten tratamenduak**. Hona hori egiteko arrazoiak:

- Erregelamendu Orokorrak ezarritako legezkotasun printzipioa bete behar delako.
- Interesdunei informazioa eman behar zaielako (gardentasuna).
- Tratamendu-jardueren erregistroan jaso behar direlako.

Eskakizun osagarriak egongo dira helburuak eta lege-oinarriak identifikatzeko, **babes berezia** duten datuak tratatzen direnean, adibidez: **osasunari, ideologiari, edo arraza edo jatorri etnikoari buruzko datuak**.

Babes berezia duten datuak tratatzea debekatuta dago izaera orokorrarekin, eta Erregelamendu Orokorreko 9.2 artikuluan aurreikusitako salbuespenetako bat ezarri ahal denean baino ez dira tratatuko.

► Administrazio publikoen kasuan ohikoa izaten da tratamenduen lege-oinarria izatea **interes publikoaren izenean** edo tratamenduaren arduradunari esleitutako **botere publikoen izenean** burututako eginkizun bat bete beharra.

Tratamendua zilegi egiten duten interes publikoak eta botere publikoak **lege izaerako arau** batean jasota egon beharko dute.

► Tratamenduaren oinarria adostasuna bada, gogoan eduki behar da orain baldintza gehiago bete behar direla adostasuna eskuratzeko (borondate-adierazpen askea, zalantzarik gabekoa eta zehatza izateaz gain, egintza positibo argi batez egin beharko da). Horrek esan nahi du **isilbidezko adostasuna (tazitoa) baliogabetu egiten dela**, hau da, ez duela balio interesdunaren berriazko ez-egiteren batean oinarritutako adostasunak.

Erregelamendu Orokorrak zabaltu egiten ditu administrazio publikoek **hirugarren herrialdeetara datu transferentziak** egiteko lehendik zeuden mekanismoak (egokitzen erabakiak, berme aproposak eta arau korporatibo lotesleak), berriazko zenbait aurreikuspen gehituz eta alde aurreko adostasun beharra kenduz. Aurreikuspenen artean aipa daitezke, adibidez, **agintarien edo erakunde publikoen arteko tresna juridiko lotesleak**. Baina, lotesleak ez diren **administrazio akordioak** direnean, kontrol agintaritzen **baimena** beharko dute.



4 Interesdunei ematen zaien informazioa berrikustea

Berrikusi egin beharko da interesdunei ematen zaien informazioa (adibidez, web inprimakietan edo paperezkoetan edo hirugarrenen inprimakietan), indartu egin

delako interesdunekiko gardentasuna, eta orain lehen baino informazio gehiago eman behar zaielako.

Argibide gehiago eskuratzeko, oso lagungarria izan daiteke «**Informatzeko Eginbeharra Betetzeko Gida**». Datuak Babesteko hiru kontrol agintaritzen artean egin dute (AEPD, APDCAT eta DBEB), eta URL honetatik jaitsi daiteke:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/modeloclausulainformativa-eu.pdf

5 Eskubideak egikaritzeko prozedurak berrikustea

Erregelamendu Orokorrak mantendu eta zabaltu egin ditu orain arteko «*datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideak*», eta tratamenduen arduradunek eta eragileek honakoak hartu beharko dituzte kontuan:

Ebazpena ezezkoa denean, aholkatzen da DBOren iritzia jasotzeko.

- Eskubideak egikaritzeko, bitarteko eskuragarriak, irisgarriak eta errazak ezartzea, baliabide elektronikoak barne.
- Interesdunei Erregelamendu Orokorrak **ezarritako epeetan** erantzun ahal izateko prozedurak ezartzea.



6

Tratamendu-eragileekin dauzkaten kontratuak berrikustea

Erregelamendu Orokorrak indartu egin ditu tratamendu-eragileekin kontratuak sinatzeko baldintzak. Hona:

- Erregelamendu Orokorrek dio arduradunen eta eragileen arteko harremana **kontratu edo egintza juridiko** baten bidez formalizatu beharko dela beti, zeinak eragilea arduradunarekin lotuko baitu.
- Tratamenduaren arduradunak kontu handiz aukeratu eta gainbegiratu behar dituela tratamendu-eragileak, eta Erregelamenduak xedatutakoa betetzeko gaitasuna duten tratamendu-eragileak baino ez direla kontratatuko.

Administrazio publikoen kasuan ohikoa izaten da tratamendu enkargua **egintza juridikoen** bidez egitea. Horren adibide bat izan daiteke zerbitzu informatikoak ematea xede duten organoak sortzen dituen araua.

Jadanik izenpetuta dauden enkargu kontratuak berrikusi egin beharko dira, Erregelamenduak ezarritako gutxieneko edukietara egokitzeko.

Argibide gehiago eskuratzeko, oso lagungarria izan daiteke honako gida:

«**Tratamenduaren arduradunen eta eragileen arteko kontratuak egiteko jarraibideak**».


Datuak Babesteko hiru kontrol agintaritzen artean egin dute (AEPD, APDCAT eta DBEB), eta URL honetatik jaitsi daiteke:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/directricescontratos-eu.pdf



7

Arriskuen Azterketa egitea eta segurtasun neurriak berrikustea



Orain arte, segurtasun neurriak argi zehaztuta zeuden DBLO garatzen duen Erregelamenduan (1720/2007 Errege Dekretua), eta hiru maila bereziten ziren (*oinarrizkoa, ertaina eta goi-mailakoa*).

Erregelamendu Orokorrak, ordea, ez du zehazten zein diren segurtasun neurriak; baina, beste hau xedatzen du:

«Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, kontuan hartuta eskura dagoen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolokotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrisku horri aurre egiteko adinako arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituzte».

Horrek esan nahi du herritarren eskubide eta askatasunei buruzko **arriskuen gaineko azterketa** bat egin beharko dela egiten di-

ren datu tratamenduetan, berrikusiz egun ezartzen ari diren **segurtasun neurriak**; eta, hala badagokio, osatu egingo dira, emaitzak aintzat hartuta.

► **Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak onartutako Segurtasun Eskema Nazionalak finkatutako segurtasun neurriak ezarri beharko dira administrazio publikoen esparruan.**

► **Arriskuen azterketa egiteko erabiliko da MAGERIT izenez ezaguna den metodologia. Kriptologia Zentro Nazionalak (CCN-CERT) argitaratu zuen.**

► **Horrez gain, Erregelamendu Orokorrak datuen segurtasunaren urraketak kudeatu behar direla ere gehitu du, eta dagokion kontrol agintaritzari jakinarazi behar zaizkiola ukituen eskubide eta askatasunetarako arriskutsuak badira.**

8

Eraginaren ebaluaziorik egin behar den zehaztea

Azkenik, Erregelamendu Orokorrak ***Datu Babesaren gaineko Eraginaren Ebaluazioak*** (DBEE) egin behar direla ere aurreikusten du, eta tratamendu berriak abian jarri aurretik egin behar direla dio, ia seguru bada tratamenduek ***arris-ku handia*** ekar diezaiketela pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei.

Erregelamendu Orokorrak, eraginaren ebaluazioa behar duten tratamendu-eragiketen zerrenda bat finkatzen du, eta aurreikusten du datuak babesteko agintaritza nazionalak argitaratu egin beharko dituztela arrisku handiko beste tratamendu batzuen zerrendak.

Pribatutasunaren gaineko inpaktuaren ebaluazioak honetan datza:

- a) **sistematikoki deskribatzea** honakoak:
 - aurreikusi dituzten tratamendu-eragiketak
 - tratamenduaren helburuak
 - eta, hala badagokio, tratamenduaren arduradunak bilatzen duen interes legitimoa ere bai
- b) tratamendu-eragiketek beren helburuei begira duten **beharraren eta proportzionaltasunaren** ebaluazioa egitea
- c) interesdunen eskubide eta askatasunetarako **arriskuen ebaluazioa** egitea
- d) arriskuei aurre egiteko **aurreikusitako neurriak** –bermeak, segurtasun-neurriak eta datu pertsonalen babesa bermatuko dutenak barne–



Mota horretako eraginaren ebaluazioak egiteko metodologiak berariazko espezializazioa eskatzen du. Mota horretako eraginaren ebaluazioak egiteko metodologiak berariazko espezializazioa eskatzen du. AEPDk gida bat egin du eraginaren ebaluazioak egiten laguntzeko: **«Erregelamendu Orokorren menpeko datu babesaren arloko eraginari buruzko ebaluazioak egiteko gida praktikoa»** eskuragarri dago URL honetan:

<https://www.aepd.es/media/guias/guia-evaluaciones-de-impacto-rgpd.pdf>

Horiez gain, Erregelamendu Orokorrak aurreikusten du **DBEEak** egin daitezkeela **legegintza-neurrien aurreproiektuetarako** edo halakoak garatzeko, datuen tratamenduei buruzkoak badira. Halakoetan, legegintza-neurri horietatik eratorritako tratamendu partikularrek ez dute beharko eraginaren beste ebaluaziorik, **interes publikoaren** izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako **botere publikoen** izenean burututako eginkizun bat betetzea badute lege-oinarritzat.